

SUITZARAKO LEIHOA

Lehenengo urteko Titirijai jaialdiko herrialde gonbidatua Japonia izan zen. Japonian txotxongiloek, asia guztian zehar bezala izugarritzko tradizioa dutelarik. Aurtengo edizioan aldiz, lehentxeago aipatuta bezala European egingo dugu geldialdia, Suitzan hain zuzen ere. Suitza europa erdialdean kokaturik dagoen estatua da, lurralde txikia baina hizkuntzen aniztasunari dagokionean aberatsa, bertan lau hizkuntza ofizial dituztelarik. Txotxongiloek dagokienean, esanguratsua da egun 120 konpainia daudela.

Suitzan bizi den biztanleria kopurua espainian bizi denarekin alderatuz gero oso kopuru txikia dela esan dezakegu, hala eta guztiz ere adierazgarria da hain herrialde txikia izanda, txotxongiloen arloan duen mugimendua proportzionalki gurean baina handiagoa dela.

Titirijaien antolatzen ditugun "Leiho" guztien artean, hizpide duguna, hots Suitzarako leihok Aranburu Jauregian ikusgai egongo den era, kusketa propioa izango du. Bertara hurbiltzeko aukera dutenek, bost txotxongilo konpainia ezberdin ikusteko aukera izango dute. Konpainia horietako batek, hurrei zuzendutako ikuskizunak eskeiniko dituen bitartean gainerakoek gazte eta helduei zuzendutakoak eskeiniko dituzte. Guzti horretaz gainera, konpainia hauek Suitzan txotxongiloek duten egoera zein den azaltzen saiatuko dira, dituzten proiektuetaz ere hitz egingo dute eta elkarte modura lana nola egiten duten ere azalduko dute.

Erakusketa honek Aranburu jauregiko 9 erakusgela hartuko ditu, eta bertan XX. mende hasieratik gaur arte Txotxongiloek Suitzan izan duten bilakaera zein den azalduko dute.

Guzti hau posible izan da, Pierre Alain eta Paola Buscari esker. Bi artista hauek, Suitzako "Txotxongiloen antzerkirako Suitzako elkarte" -ri, jaialdi honek Txotxongiloen arteren munduan duen garrantzia zenbaterainokoa den azaldu die eta proiektu hau aurrera eramateko egindako lan guztiaren gaineko azalpena eman die.

Aipatutako Suitzako Txotxongiloen elkarte honek 300 partaide baina gehiago biltzen ditu, horien artean, profesionalak, erakusleak, terapeutak, kolekzionistak edota txotxongiloak gustoko eta euren gaineko interesa duen oro biltzen dituelarik.

Leiho hau, talaia zoragarria jasotzen duen honek, Txotxongiloen jarraitzaile direnen edota interesa duten guztiengan interesgarria izatea du helburu, bertatik zerbait berria ikasteko asmoz. Eskerrak, suitzar lagun guztiei euren txotxongiloaren mundura hurbiltzen eta disfrutatzen uzteagatik.

Erakusketa

Lekua: Tolosako Aramburu Jauregia.

Data: Azaroaren 27tik Abendaren 5era.

Ordutegia: 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara larunbata eta jaiegunetan eta 17:00etatik 20:00etara lanegunetan